

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Betirako gerra vs bake inperfektua

Aspaldi aditu nion Antanas Mockus Bogotako alkate izandakoari esaldia: «nahiago dut bake inperfektu bat betirako gerra baino». Kolonbiako bake negoziazioen testuinguruan esan zuen, hango azken hauteskundeetan zeinek gobernatuko zuen baino herrialdeak hartuko zuen norabidea jokoan zegoenean. Alvaro Uriberen bentri-
lokuoa zen Ivan Zuluaga eta egungo presidente Juan Manuel Santos ziren lehian. Aurrena, gerrazalea, mendekuza-
lea, gerrillen aurkako garaipen militar azkar eta erabatekoaren aldekoa eta bake negoziazio ororen aurkako fanatikoa zen; bestea, aldiz, bake inperfektuaren defenda-
tzailea, presoan askatzea bideratu eta biktima guztien mi-
nak eta eskubideak aitortuko zituen akordio eta konpro-
misoen aldekoa. Aurrenak gerrarekin irabazi egiten zuen, dirua eta botere politikoa, eta, bakearekin, berriz, galdu egiten zuen. Bigarrenak, bere aldetik, gerrarekin galdu egi-
ten zuen: sinesgarritasuna, karrera politikoa... Zorionez Santosek irabazi egin zuen eta Kolonbiako prozesuak bi-
de malkartsuan darrai, anbi-
balentzia eta anbiguatez le-
po, inperfekzioaz josirik.

Gauza jakina da Alvaro Uriberen *alter ego* espainia-
rra Jose Maria Aznar dela, he-
rrialdeko presidente ohi infamea. Gerrazale amorratuak dira biak ala biak, berdin Ira-
keko basamortuetan ala Ko-
lonbiako oihanetan; armak
sutan ala isilik egon, iragane-
an bezala etorkizunean, igual zaie. Horiek bezalakoentzat
bakea gerra da, etsaiak ezinbesteko baitituzte euren inte-
resen makinaria olioztatzeko, mundu biolento bat behar
baitute negozio politiko eta ekonomikoa egiteko.

Eskala handian, azken bi hamarkadotan atzera begira-
tuz, Hego Amerikan, Asian ala Ekialde Hurbilean egin di-
ren «terrorearen kontrako gerrak» ez dira irabazi, «de-
mokrazia zabaltzen» kale egin dute. Ezegonkortasun
handiagoa sortu dute, gatazkak gaiztotu dituzte, etsaiak
biderkatu eta sarraskia betikotu. Nahita, hotz eta oso on-
gi pentsatuta, kontrola eta irabaziak bermatzearen.

Logika zital hori berori, gure txikian, Euskal Herrian
bertan ere betikotu nahi dute. Bakea zigor egin eta gerra
betirako bihurtu, mendekuaren logikarekin eskola egin
eta ondorengoei «hauxe da dagoena, hartu ala hartu bes-
te aukerarik ez duzue» mezua pasatu. Ez dauka zerikus

rik «terrorismoa» delakoarekin, botere kontua da, kalku-
lu totala, ekuazio madarikatua.

Hitzak hiztegietan bezainbat adibide ditugu. Zein baino
zein aberranteago eta krudelago. Bilduma makrabo horre-
tan, niretzat azken aldiotako mingarriena, adibideak ez di-
ra falta: Nagore Mujika, ia-ia sedatuta zegoen arte bakean
utzi ez zuten Iosu Uribetxeberria, edota azken asteotan be-
rriz ere espetxeratu dituzten Santi Arrozpide eta Jorge
Olaiz euskal militanteak. Euren zigorra beteta ere, edozein
unetan, edozein aitzakia aurrefabrikatuta, nornahi, nahi
bestetan, berriz kartzelatzea posible dute. Ireki nahi duten
betirako bide mendekatia da. Amorrua bularrean biltzen
uzten ez duen izugarrikeria totala da. Militante konkre-
tuen kontrako praktika da, bai, baina terrorea eta umilia-
zio sistema bat betikotu nahi du, ezkerreko komunitate
abertzaleari bere ideal eta indarren gaineko konfiantza
kentzeko, borondate kolektibo independentista likidatze-

Militante konkretu batzuen kontrako
praktika krudel eta aberrantea da,
baina terrore eta umiliazio sistema bat
betikotu nahi du, gure herriaren kontrako
biolentzia masibo mekanizatu bat

ko. Pertsona konkretuen aurkakoa da, bai, baina gure he-
rriaren kontrako biolentzia masibo mekanizatua ere bada.

Egunkari konkretu batzuek erbia haizatu eta atmosfera
girotu egiten dute. Isilik geratzen direnen epelkeriak la-
gundu egiten die, eta, hala, betikoan gabiltza: espainiar bo-
terea gogortasunaren sinonimo eginez Euskal Herrian,
mentalitate irekientzako nazkagarria den populismo zi-
gortzaile bat elikatuz, pasio baxuenak xaxatuz salbuespe-
nezko egoera normalitate bihurtu eta berradiskidetzea xe-
de duten dinamika oro blokeatzeko.

Madarikatuak izan daitezela horrela jokatzan dutenak
eta beren kalkuluak! Izango al gara aski argi ezarri nahi du-
ten *larreostia* horren bizkarrezurra ahalik eta azkarren pus-
katzeko! Maite ditugulako. Kalean behar ditugulako. Euskal
Herriak, betirako gerra baten kondena baino, inperfektue-
netan den bake inperfektuena ere merezi duelako. •